

Araba ESI eta UPV/EHUko Arabako Campuseko

# XVII. Ikerkuntza Jardunaldiak

Ikertzea hobeto bizi izateko

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak  
esleitutako interes sanitarioaren aitormena



## Egitaraua

### Topaketa herritarrekin

Vitoria-Gasteiz · 2016ko urriaren 19a  
Europa Biltzar eta Erakusketa Jauregia



[osaraba.eus/eu/xvii-ikerkuntza-jardunaldiak/](http://osaraba.eus/eu/xvii-ikerkuntza-jardunaldiak/)

Antolzatzaileak



Laguntzaileak



**Araba ESI eta UPV/EHUko Arabako Unibertsitate Campusaren XVII. Ikerkuntza Jardunaldiak** aurkezten dizkizuegu ikertzaile eta herritarrentzat, 2016ko urriaren 19rako.

Jardunaldi hauek topagune bat dira ikerkuntzako jarduerak egiten duten profesionalen eta oro har herritarren artean, ikerkuntzan eta berrikuntzan ematen diren aurrerapen onuradunak baitira.

Alde horretatik, osasunarekin eta elkarte mugimendurekin loturiko Vitoria-Gasteizko herritarren kolektiboek zeregin garrantzitsua izan dute topaketaren gai nagusia hautatzen, eta gai hori zientzia alderdiaren eta jardunaldiari buruzko dibulgazioaren arteko lotura izango da. Halaber, hurrengo topaketetarako proposamenak sortuko dira, zientzialari eta herritarrek elkarrekin lankidetzan jarduteko modu berri honi jarraipena emate aldera.

1999an, OMEk "zahartze aktiboa" kontzeptua sartu zuen, osasun, partaidetza eta segurtasun aukerak optimizatzeko eta pertsonak zahartzen diren heinean bizi kalitatea

hobetzeko prozesu gisa. Prozesu horrek osasuna sustatzea eta gaixotasunak saihestea biltzen ditu, eta konpromisoa du jarduerak komunitario eta sozialekin; halaber, heldu nagusien eskubideak aitortzen ditu.

Aukera izango dugu medikuntzan zahartze osasungarria erdiesteko egin diren aurrerapenak entzuteko; orobat, aurretik zer erronka berri ditugun jakin ahal izango dugu. Zahartzeak ez du esan nahi gaixo egotea.

Beste alde batetik, teknologiak gure adinduek zaintzeko eskaintzen dizkigun berrikuntzen berri izango dugu: etxe inteligenteak, segurtasun gailu eta tresnak, urrutiko babes eta zaintza sistemak, robotak, etab.

Azkenik, osasuntsu zahartzeak dakarren erronka soziala eta eragiten dituen aukerak partekatuko ditugu, bai eta adinarekin agertuko zaizkigun hesiak gainditzeko era onena ere.

**Animatu eta parte hartu!**



**Ariadna Besga Dok.**

*Aurkezlea*

Araba ESI - Araba Unibertsitate Ospitaleko Barne-medikuntzako zerbitzuan ondokoa eta geriatriako espezialista da.



**Julia Barroso Dok.**

Arreta Integraleko Zerbitzuko atalburua da. Zerbitzu hori arduratzen da Araba ESI - Araba Unibertsitate Ospitaleko paziente zahar, patologia anitzeko eta ahulari arreta emateaz.



**José Ángel Cuerda Jn.**

Aro demokratikoan Vitoria-Gasteizko lehenengo alkatea izan zen eta unibertsitateko irakasle izan da berrogei urtetik gora.



**Jesús Valero Dok.**

Tecnaliako osasun zuzendaria. Biologian doktorea UPV/EHU.

Egitaraua

Ordua	Jarduera
16:00 - 17:00	<b>Ikerkuntza eta berrikuntza sarien banaketa</b>
17:00 - 17:30	Kaferako tartea
17:30 - 18:00	Goizeko jardunaldiko ondorioen aurkezpena
18:00 - 20:00	<p><b>Sinposioa: "Los nuevos retos para el envejecimiento saludable: perspectiva sanitaria, social y tecnológica"</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li><b>Ikuspuntu sanitarioa:</b> Ariadna Besga Dok. eta Julia Barroso Dok. (Araba ESI)</li> <li><b>Gizarte ikuspuntua:</b> José Ángel Cuerda Jn. (Vitoria-Gasteizko Alkateohia)</li> <li><b>Ikuspuntu teknologikoa:</b> Jesús Valero Dok. (Osasun arloko zuzendaria, Tecnalia)</li> </ul> <p>Publikoarekin eztabaida</p>
20:00	Jardunaldiak ixtea

Sarrera librea gela bete arte.